Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko ekainaren 10a, astelehena — 111 — Lunes, a 10 de junio de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEGAZPIKO UDALA

### Euskara Zerbitzua

*Iragarkia*

Legazpiko Udaleko Osoko Bilkurak 2024ko maiatzaren 29an egindako ohiko bileran, aho batez hartu zuen ondoko akordioa:

1. Udalerriko kirol-klubetako entrenatzaile/begiraleak euskaraz prestatzeko gastuetarako dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak onartzea.

2. Oinarri horiek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Legazpi, 2024ko ekainaren 4a.—Eric Galvez Alvarez, alkatea.
(4148)

*Udalerriko kirol-klubetako entrenatzaile/begiraleak euskaraz prestatzeko gastuetarako dirulaguntzak emateko oinarri espezifikoak.*

*1. Xedea.*

Deialdi honen xedea da kirol eremuan euskararen presentzia areagotzea, eta, horretarako, Legazpiko kirol elkarteei dirulaguntza eskainiko zaie beraien arloko prestakuntza edo formakuntza euskaraz izan dadin.

*2. Onuradunak.*

Kirol arloko prestakuntza euren entrenatzaile/hezitzaileei euskaraz eskaintzen dieten Legazpiko kirol-klub edo -taldeak.

*3. Bete beharreko baldintzak.*

Dirulaguntza jasotzeko baldintza hauek bete behar dira:

a) Indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta egotea eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta Erakundeen Erregistroan eta dagokion Kirol Federazioan izena emanda egotea.

b) Egoitza Legazpin izatea.

*4. Eskabideak eta aurkezteko epea.*

Eskabidea edozein unetan aurkeztu ahal izango da, oinarri hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren. Nolanahi ere, urteko dirulaguntzak banatu ahal izateko, 2024ko urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira urte horretako dirulaguntza jasotzeko eskabideak (nahiz eta iazko azaroaren 1etik aurrerako ekintzak diruz laguntzea onartzen den).

Eskabideak eta dagokion dokumentazio osagarria Internet bidez aurkezko dira Legazpiko udaleko egoitza elektronikoaren bidez: https://egoitza.legazpi.eus/. Eta salbuespen modura, paperean Udaleko Harrera bulegoan herritarrak hartzeko ordutegiaren barruan edo posta zertifikatu bidez.

*5. Aurkeztu beharreko agriak.*

Legazpiko Udalak, Nisaeren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horrez gain, dirulaguntza

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

### Servicio de Euskera

*Anuncio*

El Pleno de la corporación municipal del ayuntamiento de Legazpi, en sesion ordinaria celebrada el dia 29 de mayo de 2024, adoptó, por unanimidad, el siguiente acuerdo:

1. Aprobar las bases específicas reguladoras para la concesión de subvenciones para gastos de formación en euskera de entrenadores/as-monitores/as de clubes deportivos del municipio.

2. Publicar dichas bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Legazpi, a 4 de junio de 2024.–El alcalde, Eric Galvez Alvarez.
(4148)

*Bases específicas para la concesión de subvenciones para gastos de formación en euskera de entrenadores/as-monitores/as de clubes deportivos del municipio.*

*1. Objeto.*

Es objeto de la presente convocatoria incrementar la presencia del euskera en el ámbito deportivo, mediante la concesión de subvenciones a las asociaciones deportivas de Legazpi para la formación en su área en euskera.

*2. Beneficiarios.*

Clubes o agrupaciones deportivas de Legazpi que imparten formación deportiva en euskera a sus entrenadores/as-educadores/as.

*3. Requisitos a cumplir.*

Serán requisitos para acceder a la subvención:

a) Estar constituidas conforme a la legislación vigente e inscritas en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco y en la Federación Deportiva correspondiente.

b) Tener su sede en Legazpi.

*4. Solicitudes y plazo de presentación.*

La solicitud podrá presentarse en cualquier momento tras la publicación de las presentes bases en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. En todo caso, la fecha límite para la presentación de solicitudes de subvención para el año en curso será el 31 de octubre de 2024 (aunque se admiten ayudas económicas para acciones a partir del 1 de noviembre del año pasado).

La solicitud y documentación complementaria deberán presentarse a través de Internet en la sede electrónica del Ayuntamiento de Legazpi: https://egoitza.legazpi.eus/. Y excepcionalmente en papel dentro del horario de atención al público en el SAC del Ayuntamiento o por correo certificado.

*5. Documentación a presentar.*

El ayuntamiento de Legazpi, a través de Nisae, realizará las comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así

hauen tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatuko ditu Udalak, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu-bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunak aurretik edozein administrazioari emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak, haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren haritik, Legazpiko Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako diru-laguntza eskuratu ahal izateko, Nisae datuen eta beste administrazio batzuen bitartekaritzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

— Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen kontsulta.

— Zerga-betebeharren ordainketa egunean izatearen kontsulta.

Legazpiko Udalak ofizioz egiaztatuko du Udalarekiko betebeharrak betetzen direla.

Eskaera aurkeztuko duen kirol-klubak, berriz, honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:

a) Eskaera orria modu egokian beteta.

b) Bankuko kontu zenbakiaren ziurtagiria.

c) Prestakuntza jaso duten taldeko entrenatzaile/begiraleen matrikularen ordainagiria edo klubaren formazio kontratazioaren fakturak.

d) Ikastaroa eskaini duen erakundearen agiria, ikastaroaren deskribapen zehatza, ikastaroaren ordu-kopurua, landu dena, eta parte-hartzaile bakoitzak jasotako ordu-kopurua eta asistentzia (%tan) jasoko dituena.

e) Zinpeko aitorpena, helburu bera duten beste dirulaguntza batzuk eskatu izanari buruz edo helburu bera duten beste dirulaguntzarik eskatu ez izanari buruz.

f) Zinpeko aitorpena, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela (1 eranskina).

*6. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.*

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez badituzte identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badute edo zerbait falta bazaie, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko eskatuko zaio eskatzaileari (2015eko urriaren 1eko 39/2015).

Legeak 68. artikuluan ezarritakoari jarraiki; eta adieraziko zaio, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

Legazpiko Udalak eskaera ebaluatu eta erabakia hartzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio eta informazio osagarri oro eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

*7. Izapidetzeaz arduratuko den administrazio unitatea.*

Euskara Zerbitzuak izapidetuko ditu eskabideak.

como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa de la presente subvención. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, salvo que la persona interesada se oponga al uso de los mismos, en cuyo caso deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento de la intermediación de datos entre Administraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, que reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar documentos elaborados por cualquier Administración, documentos originales, de datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de éstas.

En este sentido, el ayuntamiento de Legazpi va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

— Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones con la Seguridad Social.

— Consulta de estar al corriente de pago de las obligaciones tributarias.

La certificación de estar al corriente con el ayuntamiento de Legazpi y la consulta del Padrón Municipal de Habitantes se realizarán de oficio.

Los clubes deportivos deberán presentar la siguiente documentación:

a) Impreso de solicitud debidamente cumplimentado.

b) Certificado del número de cuenta bancaria.

c) Justificante del pago de la matrícula de los entrenadores/as-monitores/as del equipo que hayan recibido la formación o facturas de la contratación de la formación del club.

d) Documento de la entidad que ha impartido el curso, con descripción detallada del mismo, número de horas trabajadas, número de horas recibidas por cada participante y asistencia (en %).

e) Documento de declaración jurada de haber solicitado otras subvenciones o ayudas para la misma finalidad.

f) Declaración jurada de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas (anexo 1).

*6. Subsanación de defectos y aportación de documentación complementaria.*

En el caso de que la solicitud o la documentación que la acompaña no reúna los datos identificativos, presente algún error u omisión, se requerirá al solicitante para que en el plazo de diez días subsane dichos errores (39/2015, de 1 de octubre de 2015).

De conformidad con lo establecido en el artículo 68 de la Ley, con indicación de que, en caso de no hacerlo, se le tendrá por desistido de su solicitud en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada Ley.

El Ayuntamiento de Legazpi podrá requerir al solicitante cuanta documen-tación e información complementaria considere necesaria para la evaluación y resolución de su solicitud.

*7. Unidad administrativa encargada de la tramitación.*

Las solicitudes serán tramitadas por el Servicio de Euskara.

EK\CV GAO-I-2024-04148

*8. Laguntzak emateko araubidea.*

Dirulaguntza zuzeneko emakida bidez emango da, eta eskaerak aurkeztu ahala izapidetu eta ebatziko dira, programa honetara bideratutako diru-hornidura agortu arte.

*9. Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Legazpiko Udalak % 100 finantzatuko du herriko kirol-entrenatzaile/-begiraleei euskaraz eskainitako ikastaroaren kostua.

*10. Aurrekontua.*

Oinarri espezifiko hauen arabera deitutako dirulaguntzen kopurua 3.000,00 eurokoa da eta aurrekontuko «0201.3351. 48101» kontu sailaren kontura finantzatuko da.

Aurrekontuaren kopurua iritsiko ez balitz dirulaguntza jasotzeko eskubidea duten eskabide guztiak betetzeko, dagoen dirua urtean egon diren eskari guztien artean banatuko da proportzionalki, partida agortu arte.

Aipatu diru-kopurua handitu ahal izango da, Udal Aurrekontuaren exekuzio oinarriek aurreikusten dutenaren arabera.

*11. Ordaintzeko era eta epeak.*

Udalak, aurkeztutako eskaera aztertu ondoren, dirulaguntza ordainketa bakarrean ordainduko du, justifikatu ondoren, hilabeteko epean, dirulaguntza emateko erabakia hartzen denetik zenbatzen hasita.

*12. Dirulaguntzak justifikatzea.*

Oinarri-arau espezifiko hauetako 5. artikuluan eskatzen diren agirien bidez justifikatuko dira dirulaguntzak; dirulaguntza eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak dira.

*13. Klausula gehigarria.*

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan, diru-laguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa izango da aplikagarria.

*8. Régimen de concesión de las ayudas.*

La concesión se efectuará en régimen de concesión directa y las solicitudes se tramitarán y resolverán conforme se vayan presentando, hasta que se agote la dotación destinada a este programa.

*9. Cuantía de la subvención.*

El Ayuntamiento de Legazpi financiará al 100 % el coste del curso de formación en euskera para entrenadores/as y monitores/as deportivos de la localidad.

*10. Presupuesto.*

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 3.000,00 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria «0201.3351.48101».

Si la dotación presupuestaria no alcanzara a cubrir el total de solicitudes con derecho a ayuda, la cantidad disponible se distribuirá proporcionalmente entre todas las solicitudes que hayan tenido lugar durante el año, hasta agotar la partida.

Dicha cantidad podrá ser objeto de ampliación, de conformidad con lo previsto en las Bases de Ejecución del Presupuesto Municipal.

*11. Forma y plazos de pago.*

El ayuntamiento, una vez estudiada la solicitud presentada, la subvención será abonada, previa justificación, en un único pago, en el plazo de un mes contado a partir de la adopción del acuerdo de concesión.

*12. Justificación de las subvenciones.*

Las subvenciones serán justificadas mediante los documentos requeridos en el artículo 5 de las presentes bases específicas, a presentar conjuntamente con la solicitud de subvención.

*13. Cláusula adicional.*

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.

EK\CV GAO-I-2024-04148

## 1. ERANSKINA

## ZINPEKO AITORPENA: ZIGORTUTA EZ EGOTEAREN

**AITORTZEN DUT**

- Legez ordezkatzen dudan eta deialdi honetara aurkeztu den erakundea ez dagoela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. atalean onuradun izateko ezarritako inolako debekutan sartuta

- Legez ordezkatzen dudan eta deialdi honetara aurkeztu den erakundeak ez duela zehapen administratiborik ez eta juridikorik sexu-arrazoiengatik bereizkeria egin izanaren ondorioz, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera debeku horrekin zehatutakoek ere.

**Legazpin, 202….(e)ko ……………………..ren ………(e)an.**

EK\CV GAO-I-2024-04148

## 1. ERANSKINA / ANEXO 1

ZINPEKO AITORPENA: ZIGORTUTA EZ EGOTEARENA

AITORTZEN DUT

- **Legez ordezkatzen dudan eta deialdi honetara aurkeztu den erakundea ez dagoela dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. atalean onuradun izateko ezarritako inolako debekutan sartuta**

- **Legez ordezkatzen dudan eta deialdi honetara aurkeztu den erakundeak ez duela zehapen administratiborik ez eta juridikorik sexu-arrazoiengatik bereizkeria egin izanaren ondorioz, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren arabera debeku horrekin zehatutakoek ere.**

DECLARACIÓN JURADA DE NO ESTAR SANCIONADO

DECLARO

- **Que la entidad a la que represento legalmente y que se ha presentado a esta convocatoria no se halla incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario establecidas en el apartado 2 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones**

- **Que la entidad a la que represento legalmente y que se presenta a esta convocatoria no se encuentra sancionada administrativa ni jurídicamente por incurrir en discriminación por razón de sexo ni sancionada con esta prohibición en virtud del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y para la Vida sin Violencia Machista contra las Mujeres.**

Data eta sinadura / *Fecha y firma*

EK\CV GAO-I-2024-04148